



**HITZ BIZIA**

Kaixo!  
Veronika naiz eta Txekian bizi naiz. Mundu Batuaren Ideala ezagutu nuenean **nire bizitza aldatu behar nuela** ulertu nuen.

**Lehenengo Pausoa!**

Lehenengo pausoa? **Musikako irakaslea maitatzea.**  
Ez nintzen inoiz berarekin ados egon.



**Gelan** askotan esan nion berari buruz pentsatzen nuena eta horregatik **behin baino gehiagotan deitu zion nire amari.**



Maitatzea zer zen ulertu nuenean, **barkatzeko eskatu behar niola sentitu nuen.** Gelan ondo portatzen hasi nintzen eta bere erabaki guztiei kontra ez egiten saiatu nintzen.



Egun batean, klasea bukatzean, berarekin hitz egin nahi nuela esan nion, baina berak, emandako nota baxuagaitik kexa agertu nahi niola pentsatuz, ezetz esan zidan.

**Barkamena eskatu nahi niola esan nion.**

Nire aldaketaz, eta ulertu berri nituen maitasunaz eta batasunaz hitz egin nion.

**Hasiera batean gaizki ulertu bazidan ere, aurrera jarraitu nuen, eta bera sinesgabea zela jakinik ere, bizitzen ari nintzena eta Jainkoarekin nuen harreman berria kontatu nizkion.**

**Elkarrizketak aurrera jarraitu zuen eta ni oso pozik nintzen. Geroztik gure artean erlazio ona sortu da eta beregan lehen ikusten ez nituen gauza positibo asko ikusten ditut orain.**

**BIZI KODEA**

**«Sinetsi Berri ona»** (Mk. 1,15)  
Sakontzeko, irakurri San Markoren proposamen osoa.

**2**

Jainkoaren hitzak, entzun eta biziz dakar berarekin aldatzeko bete-betea (=konbertsioa).

**Sekretua? Jesusen hitzak.**

**Hauek ez dira iradokizun, aholku, aginduak soilik.**

**Jesusen hitzetan guri hitz egiten digun Jesus berbera dago.**

Eta hitz hori Hark nahi duen bezala gure bihotzetan onartzen badugu (hau da, **bizi bihurtzeko prest egonez**), berarekin bat izango gara eta Bera guregan jaio eta hazi egingo da.

**Norbaitek pentsa dezake Ebanjelioko hitzak oso altuak eta zailak direla, eta bizitzeko eta jendearen pentsatzeko modutik urrun daudela, eta beroiek ez aditzeko eta desanimatzeko tentazio izan dezake.**

Nahikoa izango litzake **Ebanjelioko Hitz bat bakarra bizitzen saiatzea**, bertan uste gabeko laguntza eta berdingabeko indarra aurkitzeko.

**Zeren eta Hitz horrek, Jainkoaren presentzia denez,**

**LIBRE EGITEN GAITU, GARBITU ETA KONTSOLATU, POZA ETA JAKINDURIA EMATEN DIGU.**

Zailtasunak bertan behera usteratzen gaituzten bakoitzean, Hitz honek **berriro hasteko** laguntza eman diezaguke.



Aski izango da "konbertsio" bizkor bat ematea gure egotik atera eta Jainkoari irekitzeko, beste bizi bat, egiazko bizia sentitzeko.



**IN ACTION**

**Ebanjelioa BIZI-KODEA** egin duen pertsonen batekin parteka ditzakegu gure esperientziak, eta ikusiko dugu nola nonahi sortzen diren Kristoren testigantza ematen duten elkarteak.

*Hemen idazten ditut laguntzen didaten Hitzek...*



[www.teens4unity.net](http://www.teens4unity.net)